



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2023KO AZAROAREN 16AN
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA

LEHENDAKARIA

Udalek izendaturiko ordezkariak

Ordezkariek

Udalak

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATI

IÑIGO RUIZ BARRON

OÑATI

XABIER IGARTUA LOIDI

OÑATI

GORKA ARTOLA ALBERDI

BERGARA

MARKEL AZKARGORTA CID

BERGARA

MAIDER MORRAS AZPIAZU

ARRASATE

GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL

ARRASATE

KEPA URTEAGA GARCIA

ARRASATE

JASONE GIRALDO MENENDEZ

ARRASATE

EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

ESKORIATZA

ARITZ IGELTZ LAZKANO

ANTZUOLA

GARIKOITZ ITURBE ETXEBARRIA

ARETXABALETA

IBON UNZETABARRENETXEA GALLEGO

ELGETA

Etorri ez direnak:

- Kepa Urteaga Garcia

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2023ko urriaren 18an, 08:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamabost ordezkari** bildu dira

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.

2.- Dekretuen berri ematea.





DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Inork ez dauka ezer esateko Dekretuei buruz.

3.- Mankomunitateak beste organo batzuetan dituen ordezkariak izendatzea.

Mondragon Unibertsitatea

Titularra: Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga

Ordezkoa: Garikoitz Iturbe Etxebarria

Deba Bailarako Industrialdea:

Titularra: Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga

Ordezkoa: Gorka Artola Alberdi

Puntua bozkan jartzen dute eta hau da emaitza:

Alde (15): Izaro Elorza, Iñigo Ruiz, Xabier Igartua, Gorka Artola, Markel Azkargorta, Mainer Morras, Garazi Etxebarria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ibon Unzetabarrenetxea.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko hirugarren puntua.

Mondragon Unibertsitatea eta Deba Bailarako Industrialdea, S.A erakundetako ordezkarien onarpena hurrengo Juntarako uzten da.

4.- Lehendakariaren dedikazioa eta ordainsaria onartzea.

Proposamena: Mankomunitateko Lehendakariak %100eko dedikazioa eta urteko soldata gordina 68.500 Euro.

Ikusirik idazkariak aldeko txostena egin duela.

Puntua bozkan jartzen dute eta hau da emaitza:

Alde (15): Izaro Elorza, Iñigo Ruiz, Xabier Igartua, Gorka Artola, Markel Azkargorta, Mainer Morras, Garazi Etxebarria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ibon Unzetabarrenetxea.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0





DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko laugarren puntua.

5.- UTE Debagoineaa 2017ri 1.672 Euroko abala itzultzea onartzea.

Mankomunitateko 8 udaletan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu kontratua. Kontratista: UTE DEBAGOIENA 2017 S.L.

Berme itzulera proposamena

Ikusirik Ingurumen zerbitzuburuak egindako txostena abalaren itzulketari buruz 2017.10.01tik 2022.09.30 arte indarrean egon zen Debagoieneko Mankomunitateko etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua, UTE DEBAGOIENA 2017 S.L. enpresak eskainia. Hondakin bilketa zerbitzuaz gain, alboko kargako edukiontzien hornidura ere barne hartu zuen kontratu honek. Hondakin bilketa zerbitzua zuzentasunez eta baldintza agirietan zehaztutakoa beteaz eskaini zuen UTE DEBAGOIENA 2017 S.L. enpresak. Bestalde, kontratuak iraun zuen epean hornitutako alboko kargako edukiontzi eta edukiontzien tapek ez dute fabrikazio eskas bati egotzi lekiokkeen akats edo arazorik izan.

Hau guztia kontuan izanik, UTE DEBAGOIENA 2017 S.L. enpresari kontratu honetarako aurkeztutako bermea itzultzeko proposamena egiten da Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen zerbitzutik.

Oinarri juridikoak

"111. artikulua. Behin betiko bermeak itzultzea eta ezereztea.

1. Bermea ez da itzuliko edo kantzelatuko berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua kontratistaren errurik gabe suntsiarazten bada.2. Kontratuaren likidazioa onartu eta berme-epea igaro ondoren, akatsik ez badago, eraturako bermea itzuliko da, edo abala edo kauzio-asegurua kantzelatuko da."

Ebazpen proposamena

UTE DEBAGOIENA 2017 S.L-ri fiantza eran jarri zuen 1.672 Euroko bermea itzultzea onartzea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (15): Iزارo Elorza, Iñigo Ruiz, Xabier Igartua, Gorka Artola, Markel Azkargorta, Mainer Morras, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ibon Unzetabarrenetxea.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da UTE Debagoienari abala itzultzea.

6.- 2023ko Lanbideko dirulaguntzaren harira, Mankomunitateko udalekin hitzarmenak onartzea.

**ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI EKINTZETARAKO LAGUNTZEN PROGRAMA
2023ko DEIALDIA**





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

DIRU-LAGUNTZEN LEHENENGO ORDAINKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Aurrekariak

2023ko maiatzaren 24ean argitaratu zen Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez onartutako Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako 2023ko ekitaldiko laguntzen deialdia. Horren arabera 400.530,00€ko diru-laguntza onartu zen Debagoieneko eskualderako. Udalek egindako kontratazio proposamenak kontuan hartuta, Debagoieneko Mankomunitateak 400.530,00€ko eskaera bideratu zuen Lanbidera.

Lanbidek, Debagoieneko Mankomunitateak egindako eskaerari oniritzia eman zion Laneratzea Aktibatze Zuzendariaren ebazpen baten bidez 2023ko irailaren 26an.

Orain, (2023ko azaroa) Lanbidek lehenengo zatiaren ordainketa (212.280,90€) egin du eta ondorioz, Mankomunitateak udalekin sinatu ahal izango ditu hitzarmenak ordainketa horren banaketa egin ahal izateko.

Debagoieneko eskualderako 400.530,00 euro bideratuko dira udalek proposatutako kontratuak egin ahal izateko. Debagoieneko Mankomunitateak diru-laguntzaren %53a, hau da, 212.280,90€, hasierako ordainketa jaso duenez, udalekin sinatuko diren hitzarmenetan jasotako kopuruen %53a udalei ordaintzea proposatzen da.

Horrela, ondoko ordainketak egitea proposatzen da:

UDALERRIA	2023ko Programa Ebaztutakoa	2023ko Programa Laguntzaren %53
ARRASATE	169.233,04	89.693,51
BERGARA	82.689,65	43.825,51
OÑATI	52.664,22	27.912,04
ARETXABALET	33.075,67	17.530,11
ESKORIATZA	25.428,00	13.476,84
ANTZUOLA	16.178,82	8.574,77
ELGETA	11.321,20	6.000,24
LEINTZ GATZAGA	9.939,40	5.267,88
GUZTIRA	400.530,00	212.280,90

Bigarren ordainketa programaren kitapena egin ondoren eta Lanbidetik dirua jasotzen denean egingo da.

Alde (15): Iزارo Elorza, Iñigo Ruiz, Xabier Igartua, Gorka Artola, Markel Azkargorta, Maider Morras, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ibon Unzetabarrenetxea.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da gai ordeneko seigarren puntua.

7.-Galdera eskaerak.





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ez dago.

Bilera bukatutzat ematen da 12:47an, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2023ko azaroaren 16an.

Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

